

**AE KLASIKOAREN SISTEMA FONOLOGIKOA: OINARRIAK ETA
EMAITZAK. USTEZKO ALTERNATIBAK ETA SISTEMA
ZAHARRAGORAKO URRATSAK.**

1. AITZINEUSKARAREN IZAERA ETA HELBURUAK.

- ‘Aitzinhizkuntza’ beren historiaren une batetik aurrera dialekto edo hizkuntza ezberdinetan zatikatuko diren hizkuntzei deitzen diegu. Bestetik, ondoko hizkuntzen datuak eta lekukotasunak metodologia ezagun eta orokor bat erabiliaz berreraikitzen ditugun hizkuntzak ere dira. Lehen adieran, egiazko hizkuntzak dira; bigarrean, aldiz, gure metodoen bitartez hizkuntza haietatik berreraiki dezakeguna da.
- Aitzinerromantzea baino egoera hobean eta abantaila gehiagorekin berreraiketarako ez dago, dela aurreko hizkuntza egoera (latina) ezaguna izateari, dela lekukotasunei, dela ikertzaileen maila eta kopuru erraldoiari...
- Hizkuntzalaritza historikoan ezin pasa gaitezke aitzinhizkuntzarik gabe eta, beraz, ezta aitzineuskara gabe ere euskalaritzan, nahiz eta zenbait korrante ustez alternatibok (glotokronologia eta makrokonparazioa bezalakoak) kontrakoa aldarrikatu.
- Aitzinhizkuntza bitartez adituek lortzea espero duten hori ahaide-izaera horren froga garbiak diren lege fonetikoak ezartzea da.
- Berreraiketa ez da norabide bakarreko jarduna; geroko gertakari azalgaitzak azaltzeko ditugun hipotesirik onenak lirarteke.
- Beste hausnarketa: aitzinhizkuntza ez da behin betiko ezartzen den zerbait, datu berriak izan ahala edota hipotesi hobekak erdiets ahala egokituz, osatuz edo aldatuz doan eraikuntza bat baizik.

2. PREMISAK ETA LANABESAK.

- Tradizionalki Neolitikotik gaur arte iraun duen hizkuntza bailitzan begiratzen zaio euskarari; behin ere aldatu gabe, alboko hizkuntzek kutsatutakoa alde batera utzita.
- Adituen ikuspegia oso bestelakoa: euskara historiaren menpe aldatuz joan da. Nola aldatu den, zertan aldatu den... horixe aztertuko dugu.
- Mitxelena baino lehen, adituek ez zuten uste euskararen historiaz (historiaurreaz, hobeto) informazio baliagarriarik lor zitekeenik. Arrazoia: euskara hizkuntza bakartua zenez gero, familiarik ez zuena, metodo konparatzaileaz aztertzeko aukerarik ez zuen ematen, eta hura izan orduan metodo bakarra.
- Saussure (1916), Meillet (1925): “euskara beste hizkuntzaren batekin parekatzeko modurik aurkituko ez balitz, ez legoke haren historia sekula egiteko inolako itzaropenik”.

- Ondorioz, ahalegin gehienak euskararen familia aurkitzen egin izan dira. Ez da ezer aurreratu.

- Mitxelenak, barneberreraiketa aurkeztu zuen euskararen historia berreraikitzeke lanabes arazotsu baina ezinbestekotzat.

- Hizkuntzen historia berreraikitzeke, Haas-ek (1969) lau bide aipatu:

(1) eskura dugun materiala beste era batera aztertzea.

(2) familiako beste hizkuntza bat aurkitzea.

(3) mailegu zaharrak aztertzea.

(4) aitzinhizkuntza beste aitzinhizkuntza batekin konparatzea.

- Mitxelenaren aurrerapenak 1. eta 3. bideak bata bestearen lagun erabiltzetik datoz. Berreraiketa mistoa da, ohiko barneberreraiketari euskarri gisa nolabaiteko konparazioa erasten diona, kasu honetan latinetik hartutako mailegu zaharren azterketa. Aitzineuskararen fonologi sistemaren berreraiketara iritsi zen. Aitzindari bat izan zuen, Martinet Europako estrukturalismoaren buruetakoa eta fonologia diakronikoaren sortzailea, lehenengoz euskal hotsak sistema baten partetzat hartuta aztertzeari ekin ziona.

3. MARTINET-EN TEORIA HERSKARIEZ (1950).

3.1. IKERKETAREN EGOERA.

- Nahiz Schuchardt, Uhlenbeck eta Gavel (1920) bezalako adituek euskaren fonetika historikoa ikertu zuten, inolako hertsapenik gabe aritu ziren.

- Gavel-ek / bh, dh, gh / herskari ahostun hasperendunak berreraiki zituen, nahiz munduko hizkuntzetan oso hots bitxiak izan eta euskara historikoan horien arrastorik ez ezagutu. Schuchardt-ek ez zuen ez aitzineuskara ez aitzinhizkuntzatan sinisten.

- Martinet-ek ikerketaren oinarriak aldatu zituen, ikuspegi estruktural baten beharra aldarrikatuaz, hots, ez hots honen edo haren bilakabidea, sistemarena baizik kontuan hartu behar dela erakutsiaz.

3.2. MAILEGUAK AZTERGAI.

- Martinet-ek jakintzat eman zuen euskarak aldaketa fonetiko erregularrak jasan dituela. Euskal Herriaren egoera bereziak (elebitasun egoera...).

- Latinetik eta erromantzeetatik etorritakoek osatzen dute euskarak hartu dituen maileguetan talderik zabal eta segurua. Euskal fonetika aztertzeke ez dago arlo egokiagorik.

- Maileguak euskaraz egokitzerakoan pairatutako aldaketak azter daitezke, garaian garaiko euskara nolakoa zen ezagutzeko:

- (1) Zaharrago eta jatorrizko formatik gertuago. Latin garaian sartu ziren maileguk ez dituzte pairatu erromantzeetan pairatu dituzten aldaketak: eusk. “gerezia” < lat. “ceresia” /ke-/ > gazt. “cereza” /0e-/. Hitza hartu baikenuen erdaraz “ke” > “*tze” > “ce” /0e-/ aldaketa gertatu baino lehenago.
- (2) Zaharrago eta aldatuago. Latin garaian sartu ziren maileguak, euskal lexikoaren partaide bihurtu zirenez, euskal lexiko osoak ordutik aurrera pairatu zituen `euskal aldaketak´ bai pairatu dituzte: eusk. “gerezia” dugu, zeren hitza hartu eta gero euskaraz “k” goxoa > “g” aldaketa gertatu baitzen hitz hasieran.

3.3. ARAZOAREN AURKEZPENA.

- Maileguen artean estratuak bereizteko (hots, garai ezberdinetako maileguak identifikatzeko) balio duten irizpideetan interesgarrienetako bat da aurreko bokalen (e, i) aurrean euskaraz lat. “c”-k zer eman duen. Latinezko artikulazio belarea gorde duten hitzak (“bake” < “pake”, “bike” < “pice”, “gerezi” < “ceresia”...) oso mailegu zaharrak dira, lat. “ce”, “ci” palataldu eta asimilatu baitziren. Erromantzetik hartu ditugun maileguk txistukaria dute, beraz, belarearen orde: “zeru” (“**gero”) < lat. “coelu” /kelu/.

- Halere, hitzek hasieran herskari ahostuna dute lat. ahoskabearen orde (“bake”); bokal artea, lat. ahoskabeak gorde egin dira. Erromantzeetan hain juxtu kontrakoa gertatu da.

3.4. LEHENAGOKO AZALPENAK.

- Uhlenbeck-ek (1909-1910) uste zuen hasierako ahoskabea ahostunduko zela bokal arteko “-k-”-rekiko disimilazioz. Baina, halako disimilazioak ezezagunak izateaz gain, ahostuntzea bokal arteko herskari ahoskaberik ez duten hitzetan ere jazo dela dakigu (“gerezi”, “gela”...).

- Gavel-ek (1920) ez zuen onartu. Hasierako herskari guztiak ahostunduko ziren erregulari lehen maileguak hartu eta gero. Salbuespenak erraz azal daitezke (mailegu berriak, euskararen barruko ahoskabetzeak, fonosinbolismoak...).

- Bi abiapuntu:

- | | |
|-----|-------------|
| (a) | *-p- |
| | *p- |
| | *-b- |
| (b) | *p- *-p- |
| | *b- *-b- |

- (b)-n kontuan izan behar da inguruko hizkuntzek ahostun / ahoskabe sistema dutela betidanik, eta, beraz, indar handia egingo zutela oposaketa mantentzearen alde. Gavel-ek (b) hobesten du.

- Martinet-en iritziz, Gavel-en azalpena arrazoizkoa da: euskarak joera handia zuen herskariak hitz hasieran ahostun gauzatuko zen fonema batez bakarrik ordezkatuta egoteko, hitz bukaeran ahoskabeaz, eta hitz erdian (bokal artean) bi fonemaz, bata ahoskabe (batzuetan hasperendun) eta bestea ahostuna:

b-	-p (h)-	X
	-b-	
d-	-t (h)-	-t
	-d-	
g-	-k (h)-	-k
	-g-	

3.5. MARTINET-EN PROPOSAMENA.

- Hitz hasierako ahostuntzea inguruko erromantzeen eragin handiari egotzi behar zaio. Eragin horrek aldatu zuen euskararen kontsonante sistema.

- Sistema hura ezaugarritzatzeko: abiapuntua ez legoke ahostun / ahoskabe oposaketan, bada, baizik eta oso bestelako batea. Daniera lagun, 'fortis' (bortitz, indartsu) / 'lenis' (ahul) oposaketa proposatzen du. Bi herskari sail; bortitzak /P, T, K/ eta ahulak /p, t, k/.

- Herskari bortitzak hitz hasieran (#__) hasperendun ahoskatuko ziren [ph, th, kh]; bokal artean (V__V) hasperenik gabeko ahoskabeak izango ziren [p, t, k]. Herskari ahulak, berriz, hitz hasieran ahoskabe goxo bide ziren [p^o, t^o, k^o] eta bokal artean espirante ahostun [β, δ, γ].

- Latinetik hartutako maileguetan, hasierako herskariak, latinez ahostun zein ahoskabe izan, aukeran biak hots ahularen bitartez islatu ziren AE-z. Bokal artean, berriz, zeinek bere kide hurbila: ahoskabeek bortitza (ahoskabea) eta ahostunek ahula (ahostuna).

- Hitz hasiera, beraz, AE-ren herskari bortitzen saila latinezko hitzik gabe geratu zen. Inguruko hizkuntzen eraginez, bortitzen saila desagertuko zen, horrelakorik zuten jatorrizko morfemetan hasperentasuna areagotu eta hortik > espirantea > "h-" > Ø emanik.

- Gavel-ek azaldu bezala geroago sortuko zen hitz hasieran ere aurkitzen dugun herskari fonologikoki ahoskabeen saila, eta inoiz hauetarik zenbait fonetikoki hasperendun egin dira.

4. MITXELENAREN AZTERKETAK.

- Sistemak irregulartasun bat zeukan: ahostun / ahoskabe sistema normaletan (erromantzeak kasu) ez bezala, hitz hasierako herskari ahoskabeak ahostun bihurtzen ziren mailegu zaharretan. Hori azaltzeko, Martinet-ek hipotesia: euskara ez zen izango ahostun / ahoskabe sistema bat, baizik `lenis` / `fortis` sistema, non bereizketa ez baitago ahostuntasunean, ahoskapenaren indarrean baizik. Martinet-en lana Mitxelenak berretsi zuen.

- Mitxelenak (1951) hiru eratako oharrak egin zizkion, haren teoria sendotzearen:

(1) [f]-ren inguruan.

(2) Geminatu eta leherkari talde ahostun eta ahoskabeen emaitza berak euskaraz eta ezberdinak erromantzeetan.

(3) Akitanierazko eta Erdi Aroko lekukotasunak.

4.1. EUSKARAREN EGOERA.

- Bat dator Martinet-ekin euskararen historiarekin lotutako gertakari asko nahasgarri eta oztopo bilakatzen direla berreraikitzaileentzat. Batetik, dialekto zatiketa oso handia da, arrazoi politiko-administratiboengatik. Bestetik, latin eta erromantzeetatiko maileguak ugari eta ñabarrak dira.

4.2. BERRERAIKETAREN OINARRIAK ETA LANABESAK.

- Martinet-en teoria euskal datuen ezagutza sakonarekin berretsi eta osatu zuen: akitanierazko eta iberierazko inskripzioak, Erdi Aroko onomastika (IX-XI. mendeetatik aurrera) eta Erdi Aroko testuetako euskal hitz, esaldi, glosa, hiztegitxo... bai eta XV-XVI. mendetik aurrerako euskarazko testuak ere. Berreraiketa konparatua eta bereziki barneberreraiketa aplikatuaz, AE-ren fonologi sistemaren berreraiketa burutu zuen.

5. BERRERAIKITAKO SISTEMA.

- Mitxelenak Martinet-en proposamena sistema osora hedatu zuen, /h/-az landa (1957):

(a) Bortitzak: --- t k tz ts N L R

(b) Ahulak: b d g z s n l r + h

- Hots gehiago ez agertzeak ez du esan nahi ez zenik, ezpada ditugun datuekin ezi direla berreraiki. Bokal artean AE “*l” eta “*r”-ak bat egin zuten Goi Erdi Arorako; beraz, berez ezin jakin dezakegu “buru”-ren lehenagoko forma “*buru” ote zen, ala “*bulu”.

- Hotsetatik batzuk lehen unetik albo batera utzi:

- (1) Ezpainkari bortitzik ez: /p/ hotsak ez du ematen izaera fonologikoa zuenik, zeren eta, gutxi agertzeaz gainera, agertzekotan /b/-ren alofono gisa baino ez baita.
- (2) Hots palatalak: euskara historikoan hots adierazgarriak dira edo automatikoki sortuak (sekundarioak). Sistema nagusitik kanpo eta horren menpeko gisa leudeke, arlo fonosinbolikoan ziurrenera.
- (3) /m/ ere, maileguetarik eta fonosinbolismoetarik at, testuinguru sudurkarietan sortzen zen /b/-ren alofono gisa bakarrik baizik.

- “m” hotsa sekundarioki sortu duten bi aldaketa ezagutzen ditugu:

- (a) “b.....m” > “m.....h / Ø” (“*bini” > “mihi”, “*banats” > “mahats”...).
- (b) “nb” > “m” (akit. “Sembe-” > “*semme”, “*umbe” > “Umme” > “ume”).

- Bokalak berariaz ez dira aipatzen, ez dira gehiegi aldatu akitanieratik. Oraingo bostak beren hartan utzi behar: hiru irekiera-gradu, eta luze-labur bereizkuntzarik ez.

- /j/ eta /w/ irristariak berankorrek. Lehenak, aditz zaharretako “e-” aurrizkian izan ohi du iturburu nagusia; bigarrenak, diptongo zenbaiten hondar zatia ez denean, maileguetan.

5.1. HERSKARIEN BERRERAIKETAREN ALDEKO ARGUDIO GEHIAGO.

- “f”-aren lekukotasunak. Garai batean “b”-ren aldaera zen (“nafar” / “nabar”) eta orain, “p”-ren aldaera (“alfer” / “alper”, “ifini” / “ipini”). Garai zaharretan, ahostuntasuna ez zen “b” eta “p”-ren arteko bereizketa garrantzitsuena (“f” ahoskabea izanik “p” hautatuko zuten eskura zituzten hotsetan), baizik eta ahoskera ahula edo indartsua den, eta “f” frikari izanik ahula izan eta honexegatik “b” hautatu. Aitzineuskara benetako ahostun / ahoskabe hizkuntza izan balitz, [f] batarekin ala bestearekin litzateke baina ez biekin; beste zerbait zen oposaketa horren gainetik.

- Geminatuen bilakabideak adierazten du orduko euskaldunek hotsen indarrari begiratzen ziotela (geminatuak luze = indartsu) eta ez haien ahostuntasunari, zeren eta geminatu ahostunak, ahostun izan arren, `fortis`-aren bitartez adierazi baitzituzten: lat. “BB” > eusk. “p”: “abbas” > “apaiz” vs. gazt. “abad”
“sabbatu” > “zapatu” vs. gazt. “sábado”.

Berdin talde erromaniko ahostunek > eusk. ahoskabe:
gazt. zah. “cobdiçia” > “gutizia” vs. “codicia”, lat. “ad valle(m)” > “apal”.

- Lekukotasun zaharretako datuak ere alde datoz. Akitanierazko <TT> eta <CC> grafiak, agian indartsuen adierazpide ditugu (vs. <TH>, agian hasperendun). Akitanierazko herskarien banaketak erakusten digu, bestalde, “p” bakana zela, ziurrenik “b” ahularen aldaera kokagune indartsuan (elkartuen bigarren osagaiaren hasieran: akita. “Seniponnis” vs. ohiko “-bon(n)”). Iberieraz ere: ib. “Estopeles” vs. “Beles”.

5.2. TXISTUKARIAK ERANTSI.

- Bi sistemak (leherkariena eta txistukariena) bat datoz neutraltze puntuetan; biak oposaketa bera dira: frikari = ahul, afrikatu = indartsu. Hortaz, bi txistukari sail zeuden ahoskuneari dagokionez, eta bina artikulazio modu: apikari frikari eta afrikatua, eta bizkarkari frikari eta afrikatua.

5.3. OZENAK ERE BAI.

- Dardarkaria ezin da hitz hasieran agertu. /L/ eta /N/-ri dagokienez, bi datu mota: bokal arteko testuinguruan nola jokatzeko duten, batetik, eta Akitanierazko eta Erdi Aroko grafietan aurkitzen dituenak.

- Bokal arteko testuinguruan “n” guztiek eta “l” guztiek ez dute berdina jokatzeko:

- /n/ vs. /N/: (1) lat. “n” > eusk. Ø (“corona” > “koroa”).
(2) lat. “nn” > eusk. “n” (“annona” > “anoa”).
(3) eusk. “n” gordea (“anaia”, “arrano”).
(4) eusk. “n” > “h” > Ø (“*seni” > “sehi” > “sei”).

- /l/ vs. /L/: (1) lat. “l” > eusk. “r” (“solu” > “zoru”).
(2) eusk. “l” > eusk. “r” (“*gali” > “gari” / “gal”).
(3) lat. “ll” > eusk. “l” (“castellu” > “gastelu”).
(4) eusk. “l” gordea (“al(h)aba”, “el(h)ur”).

- Akitanierazko eta Erdi Aroko lekukotasunetan <nn> eta <ll> latinezko grafia geminatuak agertu, baina ez nolana: erro barruan, erroak ezagutzen ditugun heinean, euskarak “n” eta “l” gorde dituenetan; eta, bestela, erro bukaeran.

/n/ vs. /N/ = <n> vs. <nn> (“annaia”), /l/ vs. /L/ = <l> vs. <ll> (“Zaballa”).

5.4. BERDINTZE TIPOLOGIKOAK IBERIERAREKIN.

- Mitxelenak ezin alde batera utzi berreraikitako sistemak iberierarekin dituen kidetasunak, nahiz honek berekin ez dakarren ahaidetasunari egotzi behar zaizkionik.

- Hitz hasierako kokagunean ondorioak:

- (1) Gaurko euskarari "p-", "t-", "k-" edo "r"-z hasten diren hitzak edo mailegu berankorrek dira ("pisu", "teila"...), edo hitz fonosinbolikoak ("tu", "pa"...), edo sekundarioak: "biz-" > "piztu" ("b" > "p" ondoko herskari ahoskabearen asimilazioaz)...
- (2) Hitz hasierako "m-" duten hitzak ere: fonosinbolikoak ("memelo", "mamu"...), sekundarioak (bVnV: "*bini" > "mihi"...), edo maileguak.
- (3) Ez zen kontsonante talderik AE-z. "Trikatu" edo "muga" hitzak inguruko erromantzeetan aurki daitezke; askoren ustez, euskaratik mailegatuak dira. Ez.

- Bokal artean ere ondorioak: "alaba" < "*aLaba" (bestela "***araba" izango zen), "anaia" < "*aNaiia" (bestela "***ahaia" izango zen). Gertatu ote ziren inoizka "N" > "n" > "h", eta "L" > "l" > "r"? Badirudi ezetz.

- Mitxelenak beste lan gehiago egin zituen: silaba eta erro-egituraz zerbait esan zuen, eta baita morfologiaz ere.

6. ONDOKO IKERKETAK ETA EZTABAIDAK AE-REN FONOLOGIAZ.

- Salbuespenak salbuespen, Mitxelenak proposatutakoak bere hartan dirau, denbora luzez ia ez da ukitu. Halere, alor bakar batean ikusi dugu Mitxelenarenari astindu bat emateko saiorik: sistemaren oinarrian dauden herskariaren sailean, hain zuzen.

- Bide berri bi proposatu dira: Trask (1985) eta Hualde (1997). Mitxelenaren proposamenak baino azalpen botere txikiagoa lukete (hersharia bakarrik), eta ez dute datu berririk azaltzen (etimologia berririk ez), ez galdera berririk erantzuten; ez genuke ezer handirik irabaziko.

6.1. TRASK-EN PROPOSAMENA: GEMINATUAK ETA SOILAK.

- Trask-ek garrantzi handia ematen die neutralizazio batzuei, 'lenis' / 'fortis' sistema egiazko batean (hizkuntza zapotekak, esaterako) ezinezkoak, bere ustez:

ahula + ahula = bortitza; "beg(i)" + "gain" > "bekain", "erreg(e)" + "bide" > "errepide".

lat. "bb" > eusk. "p"; "sabbatu" > "zapatu".

- Sistema bakunago bat proposatzen du, kontsonante sail bakarrekoa:

p t k s ś n l r

- Testuinguru batzuetan (bokal artean nagusiki) kontsonante geminatuak agertu ("pp", "ss", "nn"...).

- Proposamen honek duen ahulgunerik handiena datu txarrak erabiltzean datza: antzinako sistema baten ezaugarriak askoz geroagoko berrikuntzetan aurkitu nahi izan ditu. “Bekain” eta “errepide” ezinezkoak dira AE-n, ez baitzegoen herskaririk morfema bukaeran (Erdi Aroan bai). Halaber, “ez” < “eze”, eta galera ez dugu uste gugandik horren urruti gertatua denik: cf. “ze-bedi” < “(e)ze-bedi” vs. “eztator” < “*ez(e) dator”; euskara zaharrean, “eze” adizkia azentuduna den (aginterazkoak bai) ala ez (gainerakoak) eta honen arabera bilakatua, ezin horrelakorik izan AE-n.

- Gainera, azalgabe uzten ditu hasieratik egin ditugun galderarik gaitzenak: nola azaldu hitz hasierako herskariak euskaraz bakarrik ahostuntzea, ez erromantzeetan? Bokal artekoak bere hartan egotea, ez erromantzeetan? Erromantzeetan geminatuek ahostuntasuna mantentzea, baina ez iraupena, eta euskaraz alderantziz gertatzea?

- Trask-ek berak atzera egin eta 1997ko liburuan Mitxelenaren sistemara bihurtu zen.

6.2. HUALDE-REN PROPOSAMENA: AHOSTUN ETA AHOSKABEAK.

- Hualde-k garrantzia kontsonante ondoko posizio askotan gertatzen diren neutraltzeei: “haritz” + “-di” > “harizti”, “ardan” + “-tegi” > “ardandegi”, “mendi-tik” + “dator” > “menditator”...

- Bere ustez, datuen arabera ez dago herskari sail bietan AE-tik gaurko euskarara funtsezko aldaketarik proposatu beharrik.

- Aldaketa bakarreko hipotesia: Kontsonante ondoko asimilazioen ondorioz, hitz hasierako kokagunean ahostun / ahoskabe oposaketa galtzeko zorian izan zen garai batean, eta gero, alboko hizkuntzen eraginez, oposaketa berriro indartu da.

- Ez da etimologia berri bakar bat ere azaltzen eta datu asko Erdi Arokoak eta are beranduagokoak dira.

6.3. AZENTUA.

- Euskara modernoan, perpaus-azentua; ez da oso zaharra, herskariaren bilakaera ezberdinak lotuta baitaude hitzeko kokagunearekin. Lau proposamen ditugu:

(1) Martinet-ek (1950) azentu demarkatzailea (hitz arteko mugak bereizten dituen) hitz hasieran kokatua proposatu zuen, herskariaren banaketa azaltzeko.

(2) Mitxelenak (1957-1958), berriz, hitzaren bigarren silaban, hasperenaren agerpena azaltzeko (inoiz ez bigarren silabatik aurrera eta inoiz ez bi hasperen hitz berean). Hipotesirik onartuena da:

- Euskarak, galesez bezala, hasperena azentuaren aurrean bakarrik ager daiteke; beraz, lehen silaban balego, ondoko hasperen guztiak galduak lirateke.

- Martinet-en hipotesiak gastu gehiegi: azentu demarkatzaileak edo hitz hasieran edo bukaeran doaz. Mitxelenaren helburua eta Martinet-ena, denak biltzeko, aski da pentsatzea hitz fonologikoak bi silaba dituela, eta azentua bigarreanean doala.

- Igartuak (2001, 2002) proposatzen du Martinet-en eta Mitxelenaren azentuerak onartzea, baina kronologia ezberdinekin edo, zehatzago, kontrako ordenan: lehendabizi Mitxelenarena, gero Martinet-ena.

- (3) Hualde-ren proposamena (1993, 1995) ez da AE-raino iristen. Azentu zahar hori azken silaban jartzen du; ez du hasperenari buruz Mitxelenak ematen duen azalpena ezertan aldatzen eta, gainera, ezin pentsa genezake bere proposamena AE-koa zenik, ezta, beharbada, EBZ-koa.
- (4) Lakarraren proposamena (2005, 2006). Tipologia holistikotik abiatuta bigarren silabako erro monosilabikoetan kokatzen du bisilaboetako azentua, ikusiko dugunez lotua doa (besteak ez bezala) aurrizki eta atzizkien distribuzio eta ugaritasunarekin. Oso berandu arte euskarak duen atzizki urritasuna oso gaizki azal liteke betidaniko azentu behehantzkoarekin. Aldiz, goranzkoa balitz berandu arte, honek berarekin bailekarke, gainera, agortzen ari diren aurrizkiak (eta hitz hasierako kontsonante erorketa eta aldaketa ezagunak) zilegi egitea, kontrakoak ez bezala.